



Akta: 8/2017

2017ko abenduaren 1ean, 10:00etan, Gasteizen bilera egin **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkurak**, aurretik deialdia egin baitzen, eta gai-zerrenda hau joratu da:

1. Batzordea kudeatzeko tresna berriak aurkeztea batzordekide berriari
2. Ebatzi gabe dauden espedienteak esleitzea
3. Batzordeak eratu zenetik emandako ebazpenak betetzeari buruzko jarraipena
4. Eskaerak eta galderak

BATZORDEBURUA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

BATZORDEKIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea.

IDAZKARIA:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

1.a.- Batzordea kudeatzeko tresna berriak aurkeztea batzordekide berriari

Batzordeak espedienteak kudeatzen ditu Tramitaguneren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren administrazio-prozeduren kudeaketa elektronikorako plataformaren bitartez, informazio publikoa eskuratzeko prozeduraren barruko erreklamazioei egokitutako aplikazio bat erabiliz. Aplikazio hori, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeko kideentzat prestatuta dago. Espediente elektronikoak nahiz aurrez aurreko espedienteak edo posta bidezkoak elektronikoki kudeatzen dira. Dokumentu fisikoak dokumentu elektroniko bihurtzen dira, eta xede horrekin ezarritako erregistroko, jakinarazpeneko eta sinadurako plataforma elektronikoak erabiltzen dira.

Batzordearen aktak eta batzordeak ematen dituen ebazpen anonimizatuak GARDENA gardentasun atarian argitaratuko dira, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearentzat prestatutako eremuan, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen barruan.

Batzordearen osaera berria GARDENA atarian dago argitaratuta, kideen identifikazio-datuekin, harremanetarako datuekin eta lanbide-ibilbidearekin.

Batzordekide berriak Tramitagunera sartzeko eta espedienteak kudeatzeko beharrezkoak diren baimenak dauzka jada.



2.a.- Ebatzi gabe dauden espedienteak esleitzea

Jarraian, batzordeburuak ebatzi gabe dauden espedienteak esleitu dizkie batzordekide txostengileei. Hona hemen batzordekide horiek:

- 2017/000076 Koldobike Uriarte
- 2017/000077 Maria Soledad Gutierrez
- 2017/000078 Koldobike Uriarte
- 2017/000080 eta 2017/000081 (antza denez, espediente berbera da) Maria Soledad Gutierrez
- 2017/000082 Koldobike Uriarte
- 2017/000083 Maria Soledad Gutierrez
- 2017/000085 Koldobike Uriarte

3.a.- Batzordeak eratu zenetik emandako ebazpenak betetzeari buruzko jarraipena

Honako udal hauekin harremanetan jartzea erabaki da, emandako ebazpena betetzeari buruzko informazioa eskatzeko

- 2017/000024 espedientea, erreklamatzailerak 2017ko ekainaren 19an jakinarazi ziolako ez zuela informaziorik jaso, eta Durangoko Udalak Batzorde honi ez dizkiolako jakinarazi Ebazpena betearazteko egindako jarduketak
- 2017/000069, erreklamatzailerak 2017ko azaroaren 11n jakinarazi zuelako ez zuela informaziorik jaso, eta Bilboko Udalak Batzorde honi ez dizkiolako jakinarazi Ebazpena betearazteko egindako jarduketak

4.- Galderak eta eskaerak

Batzordeburuak urtarrilaren erdialdean beste bilera bat egitea eta ordura arte egin izan litezkeen ebazpen-proposamenak ekartzea proposatu du.

Besterik ezean, batzordeburuak bilera amaitutzat eman du, 12:00etan.

Idazkaria
Koldobike Uriarte

Batzordeburua
Javier Bikandi

Batzordekidea
Maria Soledad Gutierrez